



**EGITARAU**

**Apirilak 18:** 5:00 Zarautzik. Irteera, eta 13:00 aldera **Ubera**-ra iritsi, eta bertan bazkaltzeko parada.

- 16:30 autobusa hartu eta Cazorla-ko aterpetxera joateko bidaia

**Apirilak 19:** Mendi ibilaldia; **POYOS DE MESA (1601 m)** . Ibilaldia, irteera honetako motxena da, 18,5 Km inguru eta 750m-ko desnibela, Guadalquivir ibaiaren sorburu inguruko gailur ederra, goi partean zelai ederrak eta ikuspegi zabalak dituena. Ibilbide zirkularra da. Ibilbidea bidezidorretatik barna doa gehienbat eta paraje ezkutu eta basatiak zeharkatzen ditu. Arratsaldean ordubete inguruko ibilaldi txiki bat egiteko aukera egongo da Cascada Linarejos inguruan.

**Apirilak 20:** **GILILLO**. Larunbata egun borobila izango dugu. Ibilaldiak 22 Km inguru eta desnibela berriz 1230m ingurukoa. Cazorla herritik abiatuta bertako gailurrik famatuena eta mendizerrako garaiena igoko dugu bere 1848 metroekin. Ibilbide zirkularra da eta, egingo ditugun hiru ibilaldietatik goi-mendi kutsu handiena duena ere bai.

**Apirilak 21:** **RIO BOROSA, LAGUNA DE VALDEAZORES**. Borosa ibaiaren bailaratik gora joango gara Valdeazores-eko aintziraraino. Aintzirak, haitzarteak, eta ur-jauziak, paraje ederra benetan. Joan eta etorri bide berdietatik egingo dugu, ibilbidea luzea da baina erreza. Ibilaldiak 27Km inguru ditu eta 1170m-ko desnibela

**Apirilak 22:** 9:00tan Cazorlatik irten eta, Madril pasa ondoren geldialdia egingo dugu bazkaltzeko. 15:30etan irten eta 20:30 alderako Zarautza iristea aurreikusten da

**OSTATUA** **Iturjoen** aterpetxean (Cazorla) Maindireak eta mantak bertan daude

**Erregimena:** Pentsio erdia

**PREZIOAK**

	<b>Bazkideak</b>	<b>Ez bazkideak</b>
<b>Gazteak</b>	<b>210,00</b>	<b>215,00</b>
<b>Helduak</b>	<b>265,00</b>	<b>275,00</b>

**Prezioan sartzen da:** autobusa (joan-etorria, eta mendi irteeratako eta turismoa egiteko bidaiak) eta ostatua (lau afari, lau gau eta lau gosari).

**IZEN EMATEA** Tokia: Pagoeta Mendizale Elkarteko bulegoan, (**nahitaezkoa da horrela egitea**) eta baita ere, **derrigorrezkoa da FEDERATUA izatea**

Izena eman eta ordainketa egindakoa onartuko da zerrendan (**Plazak: 42**)

**Datak: Bazkideak, Martxoak 7 eta 14,** 20:00etatik 21:00etara

**Bazkide ez direnak; Martxoak 21etik aurrera,** 20:00etatik 21:00etara

**ORDAINKETA** Ordainketa transferentzia bidez egin behar da, eta ordain agiria aurkeztu.

**Transferentzia egitean bakoitzaren izen-abizenak eta Cazorla kontzeptua jarri behar da**

**Transferentzia bi kontu hauetako batean egin daiteke:**

Kutxabank: IBAN: ES91 2095 5076 48 1065685215; BIC: BASKES2BXXX

Laboral Kutxa: IBAN: ES29 3035 0029 65 0290015562; BIC: CLPEES2MXXX

**IRTEERA** Goizeko 5:00etan Agoues-eneko biribilgunetik. **4:45erako** irteera gunean egotea gomendatzen da.

**OHARRAK**

- Baja eman ez gero eta ordezkorik ez badago, diru itzulketa aterpetxearen arabera izango da.
- Unean-unean egoerak horrela eskatzen badu, antolakuntza batzordeak eskubidea du beharrezko aldaketak egiteko egitarauan.